

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Ogasunak 2013ko Errenta eta Ondare Kanpainako 136 milioi euro itzuli ditu dagoeneko

Kanpaina ekainaren 24an amaitzeko hamar egun falta direnean, 283.929 errenta-aitorpen izapidetu dira

Viernes, 13 de junio de 2014

Nafarroako Zerga Ogasunak itzultzeko izan diren 2013ko 174.525 errenta-aitorpeni dagozkien 136.263.242 euro itzuli ditu dagoeneko, hau da, orain arte itzultzeko diren guztien % 87.

Orain arte, eta gaur jakitera eman den [2013ko Errenta eta Ondaren Kanpainaren](#) behin-behineko balantzearen arabera, datorren ekainaren 24 kanpaina amaitzeko hamar egun falta direnean, organismo autonomoak 401.253 pertsonaren 283.929 aitorten izapidetu ditu. Aurkeztutako aitortenetatik 200.037 (% 70) itzultzeko izan dira, 75.137 aitorten (% 20) ordaintzeko, eta gainerako 8.755en (aurkeztutakoen % 4) emaitza hutsa izan da.

Izapidetzeko moduari dagokionez, 166.555 aitorten bat datoz kanpainaren hasieran zergadunei bidalitako proposamenekin eta, orain arte, onartu egin dira (bidalitakoen % 91). Kanpainarekin lankidetzan jarduten duten Nafarroako Ogasunaz kanpoko erakundeek 59.772 aitorten izapidetu dituzte. 37.917 aitorten Internet bidez aurkeztu dira bulego birtualean zergadunen eskura jarritako bitartekoen bidez eta 21.807 aitorten Ogasunaren bulegoen bidez aurkeztu dira. Orain arte, beste 878 aitorten ere eskuz aurkeztu dira.